

ATLANTIKALDIA

2023

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

BIDASOA.HITZA.EUS

OARSOALDEA.HITZA.EUS

Imanol Saiz

Bitakora

Abian da Errenteria-Oreretako Atlantikaldia jaialdiaren hamargarren ekitaldia. Orain arte egindako bidearen ospakizuna izango da aurtengoa, hamar ediziotan idatzitako bitakora koadernoaren eta sortzaileen ekarpenekin osatzeko, jada berezko duen izaera indartuz.

Itsasoa gugan
hasten da...

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

...gozatu
Atlantikaldia!

Irunen eta Beran

aurkituko gaituzu

943 63 45 36

www.goieko.com

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Atlantikaldiaren hamargarren ekitaldiak atzo hasi zuen bidea *Bitakora* lelopean. Aurtengo ekitaldiari jarri dioten izen hori ezin hobeto datorkiola azaldu zuen Aizpea Otaegi alkateak, egitarau oso aurkezteko joan den astean egindako agerraldian: «Izan ere, Atlantikaldiak eman dizkigun momentu eta bizipen horiek osatzeko, eragile sortzaile, herritar guztion artean osatzen joan garen bidaia koaderno horri egiten dio erreferentzia aurtengo leloak; idazten jarraitzeko gonbidapenari, eta herri gisa hartzen dugun konpromisoari ere».

Atzotik lerro eta esperientzia berriak, eta batez ere kultura eta musika gehiago gehitzen hasi dira, eta aurretik hiru egun eta hamarka ekintza dituzte herritarrek zein bisitariak Atlantikaldiarekin gozatu eta bitakorara esperientzia berriak biltzeko. Musika, dantza, artea,



Atlantikaldiaren egitarau osoaren aurkezpena, hilaren 7an. **Ikerne Zarate**

Kultura anitzen topalekua

Atlantikaldiaren hamargarren ekitaldiaren barruan 59 jarduera eta emanaldiz gozatzeko aukera izango da. Atzo hasi eta etzira arte, askotariko kultur eta doinuen topaleku izango da Erretereria-Orereta.

Lete
itzulpenak
www.lete.net

administrazioa . publizitatea
liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 • lete@lete.net
www.lete.net

Albistur  **Gozatu**
Atlantikaldia!
Mantentze eta berritze-lanak

ALBISTUR ERAIKUNTZAK

Proiektu eta berrikuntza orokorrak · Arreta pertsonalizatua

BULEGOAK: Biteri kalea 3, behea · SUKALDEEN ESPOSIZIOA: Biteri kalea 2, behea
943 52 78 01 - 665 727 764 - www.albistur.es



literatura, historia eta gastronomiarekin lotutako 59 jarduera eta emanaldirekin ondu dute aurtengo egitaraua. Beti moduan, ezinbestean, askotariko eragileen beste hainbeste proposamenekin. «Pentsatzen dugu diziplina eta sormen esparru ezberdinen bidez lor dezakegula Atlantikaldiaren bidez bilatzen duguna: elkarbizitza eta kultura ezberdinen artean zubiak eraikitzea», nabarmen jarri zuen alkateak. Horrenbestez, Otaegiren esker ona erreferente itzela den Atlantikaldiari ekarria egin dioten horiei guztiei.

LAU AGERTOKI NAGUSI

Atlantikaldiak lau agertoki nagusi izango ditu: kartel buruen oholtza izango den Itsasargi Nagusia —Agirre Lehendakariaren plaza—; emanaldi intimoagoak eskainiko dituen Herriko Plaza; artista urbanoen espazioa izango den Kalekaia —Panier—; eta jarduera parte hartzaileetarako gunea izango den Herrixka —Foru Plaza—. Azken hori, gas-

trogune ere izango da bertan jarriko dituzten foodtruck-etako eskaintza gastronomikoarekin.

Lau gune nagusi horiekin batera Torrekuako ingurua ere agertoki natural bilakatuko da dantzaren bidez: Kukai Dantzaren *Yarin site specific* eta Share dantza proiektu kolektiboan parte hartzen duten nazioarteko dantzariak saioak emango dituzte bertan bihar.

Urtero gisa, aurten ere estilo, genero eta jatorri anitzetako proposamenak taularatuko dituzte Atlantikaldian. Honakoak dira: Szamana Contraste, Olaia Inziarte, EDE, Yaima Orozco, DJ Rita, Doble & Hugsound, Rebeca Lane, Yassar, Ramada Inn, Olana Liss, Malva Vela, Deñe, Trouble Woman, Eire, Mirua, Etxepe eta Denso, besteak beste.

Ez dira faltako EMKE Bandaren *Bi lurralde, hizkuntza bat* emanaldia, eta bertako Herri Arte Eskolak Galesko hiru artistarekin egindako hilabeteetako elkartrukearen emaitzaren taularatzea, *Galestar konexioa*.

Zerrenda luze horri Itsas Elkarrizketak gehitu behar zaizkio. Aurten, Femina eta Bea, eta Idoia Asurmendi; Aywa eta Kimu Txalaparta; Nidia Gongora eta Olaia Inziarte; Bia Ferreira eta Iban Nikolai; Rodrigo Cuevas eta Dupla, eta Hekthorfolk izango dira protagonistak. Nazioarteko eta bertako sortzaileak taula gainean elkarrekin ariko dira inoiz batera taularatu gabeko emanaldiak lehenengoz Atlantikaldiako publikoari eskainiz. Elkarlan horiek jaialdiaren bereizgarri nagusienetakoa dira. Egitarau osoa oarsoaldea.hitza.eus webgunean kontsulta daiteke.

Musika eta dantza emanaldiekin batera, literatura, gastronomia, eta haur nahiz helduentzako ikastaro eta tailerrak ere antolatu dituzte: paddle surfa, bisita gidatuak, Bitakontakizunak, Ziklobira, dantza polinesiarrak, afro urban tailerrak... Antolatzailleen aldetik eskerra bat: Atlantikaldira egunotan bertaratu behar direnek erabil dezatela garraio publikoa. X

ERRIOTIK, HERRI. BIBA ATLANTIKALDIA!

orereita ikastola AURRERA!

kilometroak

www.orereitaikastola.eus

ZURE SEAT ETA VOLKSWAGEN TALDEKO ZERBITZU OFIZIALA ERRENTERRIAN

Ayerdi Motor

Gure bezeroei zerbitzua ematen esperientzia handia dugu, eta Ayerdi Motor erreferentzia da autoen salmentan, banaketan, eta autoen konponketa zerbitzu ofizial bezala Lezon.

SEAT ESPEZIALISTAK

VW ESPEZIALISTAK

SKODA AUTO ESPEZIALISTAK

Audi ESPEZIALISTAK

- AUTO BERRI ETA AUKERAKOEN SALMENTA.
- MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA.
- TXAPA ETA MARGOKETA TAILERRA.
- ORDEZKATZE AUTOA.

INSTALAKUNTZAK: Jaizkibel hiribidea, 1 - LEZO. Tel. : 943344525
ayerdimotor@ayerdimotor.com - [WWW.ayerdimotor.com](http://www.ayerdimotor.com)



Trena



Gastrogunea



Edariak



Atseden gunea



Komunak

CIFP DON BOSCO LHII



DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA

20100 Errenteria

Tel.: 943 510 450

donbosco@donbosco.eus

www.donbosco.eus

PAPER KALEA, 1

20400 Tolosa

Tel.: 943 672 900



**Lanbide heziketa
baino askoz gehiago**



2 0 0 7

2007

2007

2007

2007

2007



BIZIKLETAK

GURPIL ARTEA

Hilaren 16an, 11:30ean. Mugikortasun eredu iraunkorrek tokia izango du Atlantikaldian. Kaleko Txirrina eta Gurpil Artea elkarten ekimenez, Ziklobira egingo dute Herrixkatik hasita, eta ondoren, Ziklojaia.



BISITA GIDATUAK

ATLANTIKALDIA

Atlantikaldian zehar. Atzotik igandera arte, zortzi gai zehaztzen gaineko bisita gidatuak jasoko ditu Atlantikaldiak. Herriaren ondarea eta historia ezagutaraztea dute xede.



POLINESIAKO DANTZAK

HERRI BIZIA

Hilaren 16an, 19:00etan. Urteak daramatza Errenteria-Oreretako Hoku Kai taldeak Polinesiako dantzak ezagutarazten. Atlantikaldian ikastaroa eta erakustaldia egingo dituzte.



GALIZIA ETA EUSKAL HERRIA

EMKE

Hilaren 16an, 12:30ean. Herriko Plazak EMKE Bandaren *Bi lurralde, hizkuntza bat* ikuskizuna jasoko du. Galiziako eta Euskal Herriko kulturetako kantuak izango dituzte ardatz herriko bandako kideek euren errepertorioan. Emanaldiaren bidez nabarmendu nahi dutena da Galiziatik Euskal Herrira izan zen migrazio prozesu historikoa, batez ere XIX. eta XX. mendeetan eman zena. Hala, joan-etorriko bidaia izango da EMKEk musikaren bidez proposatuko duena.

BEGI
optika

biteri kalea, 34 · orereta-errenteria · tel 943 526 753

OREKA
ENTZUMEN ZENTROA



• Haur eta helduentzat
Terapia Estrategiko Laburra

• Banakako, bikote eta familia terapia

JAKOBE
PSIKOTERAPIA
620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez
Psikologoa GZ 1579
Xenpelar kalea 6, solairuartea,
5. bulegoa. Errenteria
www.jakobepsikoterapia.com

OIARTZO
IKASTOLA
etorkizunerako bidelagun

Erriotik, herri.
Biba Atlantikaldia!

www.oiartzoikastola.eus

IKASTOLA EREDU
Ikastolen elkartea



Rebeca Lanek emanaldia egingo du gaur, 22:00etan, Kalekaian. **Rebeca Lane**

Emakumeen sorkuntza lehen lerroan jarriko du Atlantikaldiak

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Atlantikaldiak keinu egingo die emakumei. Ez nolanhikoa gainera: kartel nagusia osatzen duten zortzi artistetatik sei emakumeak dira. Honakoak dira emanaldi nagusietan ariko direnak: Femina Argentinako taldea (atzo egin zuen emanaldia), Nidia Gongora kolonbiarra, Olaia Inziarte euskalduna, Ede madrill-

darra, eta Guatemalako Rebeca Lane (gaur ariko dira), eta Bia Ferreira brasildarra (bihar arituko da).

Ziur ez dela ausazko kontua, jaialdiaren antolatzaileek ez dutelako haririk gabeko puntadarik ematen, eta argia delako Errenteriako Udalak duen konpromisoa emakumeak lehen lerroan jarri, eta udalerrria berdinzaleagoa izan dadin. Kultur topagune eta musika jaialdiaren ekitaldi guztietan nabaria izan bada ere, honakoak are ageriago utziko du apustu hori, artista nagusiez gain, Atlantikaldiaren barruan antolatutako gainontzeko emanaldietako erdiak baino gehiagok emakumeak izango dituelako protagonista.

Bitakora du leloa Atlantikaldiaren hamargarrenak, eta zalantzarik ez da, bitakora horretan jasoko duten koadernoaren orriak emakumeek idatziko dituztela.

BITAKORA FEMINISTA

Egitarauaren barruan, Bitakora Feminista tailerra antolatu dute. Bihar izango da, 10:00etan, Herrixkan (Foru plazan). Bi ordu eta erdiko tailerra da. Parte hartzen duten emakumei gonbidapena egingo diete, jolasetik abiatuta, bizi esperientziak eta esperientzia kolektiboak ikuspegi feministatik islatzeko. «Berdinetik berdinerara gizarte arloko espazio bat okupatuko da, desberdintasuna errespetatuz eta emakumeek eta emakumeen etxeek egindako lanak balioetsiz, haien eta gizarte osoaren emantzipazio iturri gisa egindako lana aitortuz», azaldu dute antolatzaileek. ✕

BOKATAK
HAMBURGESAK
SANDWICHAK
ENTSALADAK
PINTXOAK
RAZIOAK

BALEA TABERNA
Gamon Zumardia 16
Errenteria-Oreeta
Tel.: 689 46 13 37


Nagore Cabada
HORTZ KLINIKA

Gozatu Atlantikaldia!
Egin irribarre!

Santa Klara plaza, 2. 20100 Errenteria.
Tel.: 943 017 876. klinikanc@gmail.com

Kulturen arteko fundizioa izango da Torrekua

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Atlantikaldiaren altxorretakoa ez da jaialdiaren gune ofizialetan izango. Torrekua jasoko du. Kukai Dantzak antolatua, Jon Maya eta Andres Marin dantzariak *Yarin Site Specific* ikuskizuna eskainiko dute bihar (larunbata) 13:30ean hasita. Bat oreretarra, bestea sevillaarra. Euskal dantzak eta flamenkoa dira saioaren ardatza. «Ez da euskal dantzen eta flamenkoaren uztarketa bat. Topagunea da. Hiru hitz erabiltzen ditugu *Yarin* definitzeko: sustraia, topaketa eta elkarriketa. Zintzoena norberaren sustraiei fidel izatea zela erabaki genuen sormen prozesuan, eta norbera beretik, bestearekin elkarriketan jartzea», zehaztu du Jon Mayak: «Fusioa baino, fundizioa da. Bi materia diferenterekin, materia berri bat ateratzen dugu».

Sevillako Flamenko Bienalean estreinatu zuten bi dantzariak *Yarin* ikuskizuna, iazko irailean. Urtarriletik, berriaz, ia mundu osotik zabaldu dute. Atlantikaldikoa, antzokietan egiten duten ho-



'Yarin' ikuskizunaren moldaketa urbanoa izango da Jon Mayak eta Andres Marinek Torrekuan eskainiko dutena. **Kukai Dantza**

rren moldaketa urbanoa da. «Martxan goazen heinean ikuskizuna asko ari da hazten. Gure arteko harremanean ere oso agerikoa da hori. Berezia da, estetika berezikoa, eta horrek jendearen artean erreakzioa sortzen du. Hori da bilatzen genuena», zehaztu du Mayak.

Kukaiko kideak adierazi du ikuskizunaren sortze prozesu osoa Erreterria-Oreretan egin zela, baita ate irekien entsegua ere, Lekuonan, iazko irailean 22an. «Lekuona bete zen, baina ez zen egun brillantea izan guretzat. Horri esker, baina, zuzenketak egin eta estreinaldi aparta izan zen Sevillakoa, astebe-terogero. Beraz, pertsonalki beti izan dut gogoia herrira itzuli, eta ikuskizuna bere edertasun osoan aurkezteko».

Kulturartekotasunaren eredu da *Yarin*. Bizikidetzan eragiteko proiektu baten barruan kokatua dago, ezberdinen arteko elkarriketa da, goxoa eta bortitza aldi berean. Maya: «Torrekuako espazioa, gainera, kutuna da niretzat. Artetik konkistatuko dugu». ✕

www.koldomixelenaikastetxea.com

**KOLDO
MIXELENA**

**ELKARREKIN
ARRAUN!**

Herri Ikastetxea

Fernandez de Landa z/g - Erreterria-Orereta
Tel.: 943 89 91 87 - 012905aa@hezkontza.net

bokatak eta pintxoak

ondartxo
taberna

Tel.: 657 31 86 73
Herriko Plaza, 8, 2. Orereta-Erreterria

Beerlagun

www.oarsoak.com

UGALDETXO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN
TEL. 943 49 01 62. oarsoak@oarsoak.com



Hiru urte darama Herri Arte Eskolak beste kulturekin proiektuak sortzen. **HERRI ARTE ESKOLA**

Galesko eta Euskal Herriko doinu eta dantzak eskutik

Herri Arte Eskolak hiru urte daramatza beste lurralde eta kulturekin harremanetan Atlantikaldiari begira proiektu pedagogiko eta artistikoak sortzeko; aurtengoaren emaitza: 'Galestar konexioa!'

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Beste lurralde eta kulturak ezagutu eta bizitzeko, eta aldi berean euskal kultura eta lurraldea ezagutarazteko inizatiba abiatu zuen Herri Arte Eskolak 2021ean: Konexioak. «Iniziatibaren bidez, tokian tokiko musikari eta dantzariekin harreman zuzena ezartzen da horretarako aukera badago, baita bertako eskola bate-

kin ere. Proiektu honi esker hizkuntza gutxituak, erritmo, doinu eta instrumentuak, dantza eta jantziteriak ezagutu eta aitoritzen ditugu, baita gureak ditugunak aktibatu ere», azaldu du Beñat Ralla Yusta Herri Arte Eskolako zuzendari pedagogikoak.

Emaitza, artista gonbidatuekin elkarlanean Herri Arte Eskolako ikasleek sortutako emanaldia Atlantikaldiaren egitarauaren barruan: «Euskal Herriko

doinu eta dantzak, gonbidatua den herrialdeko doinu eta dantzak uztartzen dituen emanaldia».

2021ean Vigoko (Galizia) Etrad eskolako Xixko Feijo (ahotsa, eskuzko perkusioa, gaita eta dantza) eta Xan Perezekin egin zuten elkartrukea. Lehen aldia izan zen hura, eta COVIDaren testuinguruak ezinezko egin zuen emanaldia. Iaz, berriz, El Prat de Llobregateko Escola d'Art en Viuko (Katalunia) Ignasi Cama (gitarra eta ahotsa), Sergi Torrent (perkusioa eta kaxoia) eta Gema Rovira (gralla eta dantza) irakasleekin aritu zen Herri Arte Eskola. Aurten Galesko Gwylim Rhys (ahotsa eta gitarra), Patrick Rimes (biolina eta ahotsa) eta Angharad Harrop (dantza) artistekin egin dute elkartrukea.

EMANALDIA IGANDEAN

Arlo pedagogikoa ere lantzen dute. Izan ere, gonbidatutako artistek ikastaroa ematen diete Herri Arte Eskolako kideei elkartrukearen barruan.

Galesko hiru artistekin hilabeteetako elkartrukea egin ondoren, Gales eta Euskal Herriko doinu ezagunen bertsio eta koreografiak taularatuko dituzte *Galestar konexioa* proiektuaren bidez. Rallak nabarmendu duenez, ezinbestean, taularatuko diren horietako askok «folk doinu bizi zein amultsu nabarmena izango dute». Oholtza gainean, Herri Arte Eskolako 50etik gora ikasle eta irakasle arituko dira Galesko artistekin batera. Igandean izango da hori. Itsasargi nagusiak hartuko du emanaldia, 11:30ean hasita. X

LANDARE

TABERNA *bokata onenak!*

Maria Lezo Kalea, 3. 20100 Orereta - Tel.: 943 51 00 31

BIDEBIETA autoeskola

Biteri kalea 20. Errenteria-Orereta. Tel.: 943 515 050

- GIDABAIMENA A1,A2,A,B
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- KARRETILLA
- IKASTAROAK

**LANERAKO ETA OSTALARITZARAKO ARROPA
ETXEKO ARROPA
BARRURAKO ARROPA GIZONEZKOENTZAKO**

Foru plaza, 21. Errenteria
Tel. / Faxe: 943 511 887

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Atlantikaldiaren 2015eko ekitaldian ikusi zuen argia lehenengoz Sukaldian egitasmoak, asmo zehatzarekin: Errenteria-Oreretan dagoen kultur aniztasuna balioan jartzea. Hain zuzen ere, herriko elkarte gastronomikoak eta herrian bizi diren jatorri-kultura anitzeko komunitateak (beste herritarrekin batera) harremanetan jarriko dira aurten ere Sukaldian-en bidez, ezagutzak eta esperientzia ezberdinak partekatuz gastronomiaren bitartez, eta elkarren arteko hartu-emanak sortuz. Bihar (larunbata) da jardueraren eguna: 10:00etan bilduko dira elkarte gastronomikoetan parte hartzaileak, eta 13:30ean banatuko dituzte horietan egindakoak Herrixkan. Pintxo edo errazio bakoitzaren prezioa euro batekoa izango da, eta jasoko den diru guztia Zaporeak egitaspora bideratuko dute.

Aurten osotara, zazpi elkarte gastronomikok eta beste hainbeste kulturako herrikideek parte hartuko dute egitasmoan. Elkarrekin Arditurri, Euskalderak, Alkartasuna, Gure Toki, Beraun Bera, Niessen eta Gautxori dira; horietan Peru, Ukraina, Ijito Herria, Maroko, Nikaragua, Argelia eta Nepalgo komunitateetako kideak izango dira kozinatzen, elkar ezagutzen, eta esperientziak partekatzen. Errenteriako Udaleko Kultura eta Aniztasuna sailaren arteko elkarlanagatik egingo du aurrera aurten ere Sukaldian proiektuak.

Oсотara denari forma ematen 126 par-



Elkarrekin egindakoak Herrixkan (Foru plazan) banatuko dituzte. **HITZA**

Kozinatzen munduko kulturak ezagutzeko, Sukaldian

Herriko elkarteek eta jatorri edo kultura ezberdinetako ordezkariak ehunka pintxo eta errazio egingo dituzte bihar. Horiek eguerdian banatuko dituzte. Jasotako dirua Zaporeak-entzat izango da.

te hartzaile izango dira, 18na pertsonako zazpi taldetan. Horietako bakoitzean elkarte nahiz kultura ordezkariak banako bost kide, eta tailerretan izena eman duten zortzi lagun izango dira.

SENDO

Antolatzaileek datu esanguratsua nabarmendu dute: bai herriko elkarte gastronomikoen, jardueran parte hartzen duten kultur komunitateetako kideek,

nahiz egitasmoari lotutako tailerretan izena ematen dutenetako askok urtero-urtero esperientzia errepikatzen dutela, «beraz, orain artekoetatik egiten dugun balantzea oso ona da. Proiektuak dituen hankak sendo mantentzen dira urtez urte».

Munduko komunitateen gastronomia dastatu eta kultura ezberdinetara hurbiltzeko aukera, beraz, bihar goizean zehar Atlantikaldiaren barruan. ✕



www.herboristeriapaki.com
info@herboristeriapaki.com
Biteri kalea 4 -20100 Errenteria
Tel.: 943 51 68 93

OIHALAK
ARTILEAK
IKASTAROAK



GOZATU ATLANTIKALDIA!

Nafarroa hiribidea, 28
ERRENTERIA-ORERETA
tel.: 843 67 17 34
@blazmo_ wool



Zure jostailu denda
IKUSI MAKUSI

Jostailu hezitzaileak

Kalitatezko jostailuak

Punta-puntako markak

Tel.: 943 52 88 53. Alfonso XI kalea, 3. Lokala. Errenteria - Orereta

atlantikaldia

atlantikaldia.errenteria.eus

ERRETERIA

IRAILAK
14—17

Rodrigo Cuevas - Fémina - Bia Ferreira
Nidia Gongora - Aywa - Rebeca Lane
Olaia Inziarte - Kukai - Etxepe
Bea eta Idoia Asurmendi - Ede - Dupla
Doble&Hugsound - Mirua - Eire
Malva Vela - Denso - Alidé Sans
Zilibito Records - Yaima Orozco
Ramada Inn - Trouble Woman - Szamana
Contraste - Olana Liss - Deñe - Ziklobira
Erromintxelak - Iban Nikolai - Yasser
Kimu Txalaparta - Hekthorfolk
Poesia - Literatura - DJ Rita
Gastrogunea - Zurjole - Dantza
Paddle Surf - Sukaldian - Tailerrak



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbideak, Gasteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN

18/70